



Kaixo, lagunok:

Gogoratuko duzue, hil honetan José Luis de la Mata-ren heriotzaren VII. urtemuga beteko da. Egun hori gurekin pasatzeko, Aresoko ERASONEA-DE LA MATAENAn egingo den ekitaldian parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu: [otsailaren 23an, larunbatean, goizeko 11etan](#).

2012-2013ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko [Izargain-DelaMataren Eskolan](#) garatzen ari garen [5. www Mintegiarekin](#).

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, iratiaren uhinen bitartez, [Dylan Thomasen "Esne-basoaren azpian"](#) eramango gaitu jolastera. Guztion artean Galeseko herriko auzoei bititza emango diegu haien amets eta elkarrizketetan, gure gorputzarekin, ahotsarekin, dekoratuekin, musikarekin, harremanekin, mugimenduarekin... Beraz, gidoia eskuetan izango dugula, irakurketa bizidun eta bateratu honetan gurekin parte hartzera gonbidatuta zaudete.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, bazkari bat egingo dugu. Bazkarira geratu nahi duzuenok, mesedez, esaguzue erantzuna e-mail honetara bidaliz [otsailaren 20a, asteazkena, baino lehen: \[ulumago@hotmail.com\]\(mailto:ulumago@hotmail.com\)](#).

Areson ikusi arte, har itzazue gure agurra eta besarkada.

Izargain-Areso
2013eko otsailaren 1a

Antzeziana

Esne-basoaren azpian

Under Milk
Wood
Dylan
Thomas